




<b>abaila</b> 'abiada'	«—Heldu bolanteari. Sakatu egingo dut botoia, eta <b>abaila</b> hartuko du.»	(119)
<b>adar</b> 'arrama'	«Inoren sagastian sartuta belauna urratu zuen batek <b>adarrak</b> behera egin zuelako.»	(7)
<b>ahitu</b> 'agortu, amaitu'	«...eta ez ninduten fusilatu munizioa <b>ahitu</b> zitzaielako, jendea akabatzearen akabatzez... Horretzek libratu ninduen!»	(78)
<b>alaena</b> 'halakoa'	«...baina guk, tentel <b>alaenak</b> , artadian ezkutatu genuen gizon zintzoa zelakoan...»	(42)
<b>alditxartu</b> 'atsekabetuta, gaizki'	«Peperenetik pasa gabe itzuli da etxera, urduri, <b>alditxarturik</b> , ilaran entzundakoa buruan jiraka.»	(12)
<b>alegia</b> 'hau da, hots, bestela esanda'	«...kalitatea erorikoak hartzeko ahalmenaz neurtzen dutenetakoa <b>alegia</b> .»	(9)
<b>aluita</b> 'alua, lerdoa, papaua'	«Bitartean polaroida ireki eta argazki itsusi bat egin diote. Gutxi fida HETAko <b>aluita</b> hauekin: bihar egunkarietan...!»	(80)
<b>apareju</b> 'persona trastoia, elementua'	«Agirre'tar Nikolaren iloba oso eta santu dago lo. Hau duk <b>aparejua!</b> »	(98)
<b>arbi</b> 'naboa, erremolatxa'	«...ukuiluak argi gutxi duela, <b>arbia</b> txikitzeko makina matxuratu egin dela...»	(25)
<b>ardiak soildu</b> 'ilea moztu'	«Zuk badakizu <b>ardiak soiltzen</b> ? Ez. Eta artilea iruten? Ez. Eta irundakoa astalkatzen? Ez. Eta astalkatua harilkatzen? Ez. Eta harilkatua irazkintzen?»	(87)
<b>ardura izan</b> 'axola izan'	«...horretxegatik azaltzen naiz hain gutxi, aspaldiko zerak beti ahotan, oraingoak <b>ardura ez baligu</b> bezala...»	(41)
<b>arnasa eman arte</b> 'hil arte'	«Ziatika gauza txarra dela, baina baserritarra <b>arnasa eman</b> arte beti lanean.»	(81)
<b>artokaina</b> 'arto landarearen zurtoina'	«...badakizu abuztuan izugarritzko altuera hartzen duela <b>artokainak</b> .»	(141)
<b>astalkatu</b> 'haria matazatan bildu'	«Zuk badakizu ardiak soiltzen? Ez. Eta artilea iruten? Ez. Eta irundakoa <b>astalkatzen</b> ? Ez. Eta astalkatua harilkatzen? Ez. Eta harilkatua irazkintzen?»	(87)
<b>atabal</b> 'danborra'	«Orratzek <b>atabal</b> gainean ahantzita utzitako makilak dirudite.»	(9)
<b>ataka</b> 'estutasuna, egoera larria'	«Ez hadila izutu, Metxa. Agirretarra beti. Ez haiz aurrenekoa <b>ataka</b> honetan, eta ez haiz azkenekoa izango. Aurrera bolie. Gogor.»	(133)
<b>atarramendu</b> 'probetxua, etekina'	«Mukizu honek ez dik <b>atarramendu</b> onik aterako horrela erretzen segitzez gerotan.»	(16)
<b>atorrante</b> 'larea, kantsagarria'	«Beldur gitxi moruei eta gitxiago <b>atorrante</b> hari.»	(112)
<b>atzendu</b> 'ahaztu'	«Tira, hau dena da adierazteko ez nagoela zurearekin <b>atzendua</b> .»	(107)
<b>azazkalmazteko</b> 'atzazalak mozteko tresna'	«Markoari josia gelditu den sarrailaren barrualdean <b>azazkalmazteko</b> bat ageri da sartua.»	(97)
<b>azkar usteko</b> 'bizkorra dela uste duen tentela'	«...esplikatu behar dio <b>azkar usteko</b> bati, besteren ideiak paperean apuntatu ondoren gaizki esaka jarduten duen bixar bati, zergatik...»	(24)
<b>aztal</b> 'berna, hankaren atzeko aldea'	«Odola gozo zihoakidan <b>aztalean</b> behera.»	(55)
<b>balakatu</b> 'laztandu'	«Eta, aurreko ezker hankako zauria <b>balakatzen</b> diodala, edaten emango diot.»	(59)
<b>balantzarik gabeko pauso</b> 'pauso edo urrats zuzena, tente'	«...baina amonak ez zuen <b>balantzarik gabeko pausorik</b> eman ahal izan geroztik.»	(46)




<b>baraurik</b> 'gosaldu barik'	«Bizarra egin gabe eta <b>baraurik</b> abiatu zaigu Aurrezki Kutxarantz.»	(11)
<b>beginabar</b> 'kolore nahasiko begiak'	«...atzealdeko huraxe da, kaskazuria, ume bihurri baten behakoa duena, <b>beginabarra</b> , hitzei erne egon den horixe da...»	(8)
<b>behako</b> 'begirada'	«...atzealdeko huraxe da, kaskazuria, ume bihurri baten <b>behakoa</b> duena, beginabarra, hitzei erne egon den horixe da...»	(8)
<b>beharrik</b> 'zorionez'	«...errepasatu ditu memoriako oroitzapenak. <b>Beharrik</b> telebistan film batzuk askotan ematen dituzte. Zeozertarako balio behar du lo-zaila izateak.»	(79)
<b>behatu</b> 'begiratu, so egin, aditu'	« <b>Beha ezazue</b> areto honetan, gizonetzko guztion artean atzematen duzuen agirretarren bat.»	(8)
<b>behatxulo</b> 'ateko leihotxo'	«Seguru <b>behatxulotik</b> kuku egiten ariko dela Maritxu petral hori...»	(94)
<b>behera egin</b> 'hautsi, apurtu, kraskatu'	«Inoren sagastian sartuta belauna urratu zuen batek adarrak <b>behera egin</b> zuelako.»	(7)
<b>bekainak uztai gelditu</b> 'harrituta, zurtz eginda'	«...baina ohartu ere ez da ongi ohartu zer irakurri duen. <b>Bekainak uztai gelditu</b> da.»	(68)
<b>belaxkatu</b> 'bigundu'	«Etzakela paper zurian ezer sinatu. Usteko zitean <b>belaxkatua</b> hindutela.»	(129)
<b>beldurrak airean egon</b> 'zeharo beldurtuta, dardarka'	«Emateko dirua. Kartera luzatu nion, ze, bestela edozer pitokeria egingo zidan mukizu hark, <b>beldurrak airean zegoen</b> -eta gizajoa.»	(112)
<b>beratu</b> 'bigundu'	«Horrexegatik salbatu ninduen ni, sakristaua <b>beratu</b> zuelako begi triste haiekin.»	(57)
<b>beratzen jarri</b> 'uretari jarri biguntzeko'	«Gutxi fida telebista bakailaua bezala <b>beratzen jarri!</b> »	(98)
<b>bere bizarrerako</b> 'bere kolokorako, bere kautan'	«Eta arazoa konpon litekeela pentsatu du Metxak <b>bere bizarrerako</b> .»	(13)
<b>besoak gurutze egon</b> 'ezer egin gabe'	«...Ane ez zela <b>besoak gurutze egongo</b> , sasiko lanetan ibiliko zela bere iloba ihesgina bezala...»	(124)
<b>bidezidor</b> 'bidexka, lasterbidea'	«Bata bestearen atzetik doaz <b>bidezidorretik</b> , (...) lubakiaren ondotik.»	(31)
<b>bigantxa</b> 'behi gaztea'	«Moriko jarri nion izena, aitak Matteori saldu berria zion <b>bigantxarena</b> .»	(56)
<b>biraoaka</b> 'maldizioka'	«...betaurrekoak ezin bilaturik ordu erdi bat <b>biraoaka</b> jardun ondoren, jarri da lasai, lurrundu ditu hatsaz komunean ahantziak zeuzkan hurbileko	(12)
<b>bixaje</b> 'aurpegikera, itxura'	«Ikusi nahi nitek nolako <b>bixajea</b> gelditu zaizuen...»	(98)
<b>bixar</b> 'bizar apur bat hasia duena'	«...esplikatu behar dio azkar usteko bati, besteren ideiak paperean apuntatu ondoren gaizki esaka jarduten duen <b>bixar</b> bati, zergatik...»	(24)
<b>bizarra egin</b> 'bizarra moztu, afeitatu'	« <b>Bizarra egin</b> gabe eta baraurik abiatu zaigu Aurrezki Kutxarantz.»	(11)
<b>bruxa</b> 'atorra'	«Jankada egin eta hala ere kolkoa bete etortzen ginen frontoira, <b>bruxak</b> txerri eginda.»	(55)
<b>buila</b> 'astrapala, harrabotsa'	«Eta azkenean Erko katea hautsi zuen, ateratzen zenuten <b>buila</b> eta deidarrekin ikaratu egin zelako.»	(88)
<b>burutik egin</b> 'zoratu, erotu'	«Gero Telleri Berriko amonari <b>burutik egin</b> zitzaion eta hor hasi zait galtza puska bat urratzen...»	(45)
<b>butanozale</b> 'butano banatzailea'	«Han afaltzen du gauero Leo zurginak Alejo <b>butanozalearekin</b> . Herrian inork ate tratatu bat libratzekotan, haretzek.»	(92)




<b>dangaka</b> 'kolpeka'	«...eta kaskagogorra izaki, <b>dangaka</b> jarrai zezakeen kanpai barruan.»	(53)
<b>dardara batean</b> 'oso urduri, larri-larri'	«Halako amorrua eman zidan... <b>Dardara batean</b> jarri nintzen...»	(43)
<b>diosala egin</b> 'agurtu'	«...zu zarela gure familian Telleri Berriko lapurrei <b>diosala egiten</b> dien bakarra...»	(88)
<b>dolare</b> 'sagardoa egiteko tresna, makina'	«...uste zuten zuloa soto bazterren batean egonen zela, edo mandioan, edo <b>dolare</b> zaharraren azpian ezkutatuta. Harritu ziren meta ingurura eraman	(139)
<b>ebatsi</b> 'lapurtu, ostu'	«Non <b>ebatsi</b> duzu txokolatera hau?»	(28)
<b>egundaino</b> 'gaur arte'	«Ba, bilera hartaz anaiaren alabak ez dit deus esan <b>egundaino.</b> »	(44)
<b>egundalako</b> 'itzelezkoa, izugarrikoa'	«...eta hamaikagarrenen horretan hor entzuten da <b>egundalako</b> suntsitzea, eta mundu guztia orroka izaturik...»	(47)
<b>elorrío ikusi</b> 'gorriak ikusi'	«Zeren, bakarrik joan zinela esan bazenit, <b>Elorrío ikusi</b> beharrean zinen... Badakizu Elorrío ikustea zer den? Probatu nahi?»	(127)
<b>eraman</b> 'jasan'	«...belauneko mina erraz <b>eramango</b> zuela gelditzen zitzaion bizitza pixarrean.»	(116)
<b>erne</b> 'adi, arretatsu'	«...atzealdeko huraxe da, kaskazuria, ume bihurri baten behakoa duena, beginabarra, hitzei <b>erne</b> egon den horixe da...»	(8)
<b>erorikoak hartu</b> 'erratu, probak egin'	«...kalitatea <b>erorikoak hartzeko</b> ahalmenaz neurtzen dutenetakoa alegia.»	(9)
<b>errekardari</b> 'saltzaile anbulantea'	«—Izan ere... ezagutuko duzue Sabina, herrena, plazako <b>errekardaria</b> , alarguna, semeak denak alabak dituen hori...»	(14)
<b>errenkada</b> 'ilara'	« <b>Errenkadaren</b> muturrean jarri da gorrarena egitera etsirik, egun osorako aztoraturik eta kezkatua utziko digun hizketa entzun duenean.»	(11)
<b>erreten</b> 'ubidea, kanala'	«Gero harrobitik kamioi bat ekarrarazi eta harri-txintzarrez estaltzen zuten <b>erreten</b> kriminal hura.»	(109)
<b>erretreta</b> 'erretiroa, pentsioa'	«Etorkizun latza Metxaren anaia zaharrentzat, berrogei mila pezetara ailegatzen ez den <b>erretretarekin.</b> »	(25)
<b>errieta eman</b> 'deiar egin, agiraka egin'	«Atea irekita itzuli nintzenean amak galde egin zidan, besteen aurrean ausartzen ez zelako <b>errieta ematen</b> , ea zer egiten nuen nik ikuiluan.»	(89)
<b>esan-egina izan</b> 'esaneakoa, aginduak betetzen	«Ni <b>esan-egina naiz</b> eta ate aurrean jarri nintzen zeuk agindu bezala.»	(87)
<b>eskuare</b> 'arrastelua, eskutaila'	«...belarretan ere ezin duela sardea dantzatu, <b>eskuarearekin</b> bakarrik aritzen da, eta malda-alde, behekoz gain.»	(26)
<b>estimazioa egin</b> 'gustura hartu'	«Goseka daude eta <b>estimazioa egiten</b> diete arrautzei, hotzak egon arren.»	(38)
<b>estropezu egin</b> 'tupust egin'	«...litxaferuak botatzen dituzte (...), <b>estropezu egiten</b> hasten dira ohartu gabetanik, zabuka ziraldoka hankak berriz sortuta, erortzeko arriskuan.»	(7)
<b>etsirik</b> 'erabakia harturik'	«Errenkadaren muturrean jarri da gorrarena egitera <b>etsirik</b> , egun osorako aztoraturik eta kezkatua utziko digun hizketa entzun duenean.»	(11)
<b>ezagun izan</b> 'nabaria izan, begibistakoa'	«—Oso onak arrautzak, <b>ezagun zuten</b> ur hotzetan egosiak zirela...!»	(38)
<b>firurika</b> 'biraka, birak eginez'	«...baten batek huts eginda pilota atzeko koadroetaraino heldu zen <b>firurika.</b> »	(57)
<b>gabetanik</b> 'barik, gabe'	«...litxaferuak botatzen dituzte (...), estropezu egiten hasten dira ohartu <b>gabetanik</b> , zabuka, ziraldoka hankak berriz sortuta, erortzeko arriskuan.»	(8)




<b>galtza</b> 'barneko praka'	«Aitak esaten zuen azpian ez zuela <b>galtzarik</b> erabiltzen eta praketa ireki beharrik gabe egiten zuela pixa, txotxa kendutako kupela bezala.»	(47)
<b>galtzarbe</b> 'besapea'	«Pakete bat <b>galtzarbean</b> doa agure gurea kalean barrena.»	(21)
<b>gazitigatu</b> 'abisua eman, ohartarazi'	«...berak berriro ere esan zien abisu eman nahi izan ziela, ez ziotela utzi <b>gazitigatzen</b> kontuz ibili behar zutela gasarekin...»	(141)
<b>gazitigu eman</b> 'abisu eman, ohartarazi'	«Ateondotik <b>gazitigu eman</b> dio: —Eta hi, badaezpada, kontuz ibili...»	(97)
<b>gelari</b> 'zerbitzaria, mirabea'	«...erromerietan hasiak ziren Palazioneko bizkiekin eta markesaren beraren <b>gelariaren</b> seme zaharrenarekin.»	(55)
<b>giltzatu</b> 'zarratu, itxi, hertsu'	«...betaurrekoak kendu gabetanik hemen dator igogailuari itxaron ezinik eskaileak behera atea <b>giltzatzea</b> ahantzita, belauna inoiz baino zauliago...»	(12)
<b>gomutaz</b> 'oroitzapenez'	«Eta izen hori jarri zioten, anaiaren... anaiaren <b>gomutaz</b> . Hala esaten da, ezta?»	(79)
<b>handinahi</b> 'harrokeria	«Baina aspalditik ezagutzen dugunok badakigu agure txipi honek ez dituela halakoak egiten <b>handinahiez</b> .»	(9)
<b>harilkatu</b> 'hariz inguratu, haria ipini'	«...saioak eginez erre zuen motor trifasikoari <b>harilkatu</b> behar izan zizkion bobina berriak.»	(12)
<b>harilkatu</b> ardatzean haria bildu'	«Zuk badakizu ardiak soiltzen? Ez. Eta artilea iruten? Ez. Eta irundakoa astalkatzen? Ez. Eta astalkatua <b>harilkatzen</b> ? Ez. Eta harilkatua irazkintzen?»	(87)
<b>harpa jo</b> 'txantxatan esan, adarrak jo'	«Horregatik adiskide minek Metxamotz esaten diote batzuetan, <b>harpa jo</b> nahi diotenean.»	(10)
<b>harrotu</b> 'aztarrikatu'	«Atera nintzenean azazkal guztiak hautsiak eta eskuak odoletan nituen Morikok bezala lurra <b>harrotzez</b> .»	(49)
<b>hasperen</b> 'suspirioa, arnasaldi sakona'	«...eta egure gureak <b>hasperen</b> sakon bat eginik lanean segi orduko, hemen dator ostera Maritxu pala-erratzekin.»	(103)
<b>hats</b> 'arnasa'	«...betaurrekoak ezin bilaturik ordu erdi bat biraoka jardun ondoren, jarri da lasai, lurrundu ditu <b>hatsaz</b> komunean ahantziak zeuzkan hurbileko	(12)
<b>hebaindu</b> 'guztiz ahuldu / jipoitu'	«Ea non gordetzen nituen pilotak. <b>Hebaindu</b> egin ninduen.»	(57)
<b>heriosuhar</b> 'bizi-bizi, amorru bizian'	«...ihesari eman dio Morikok, kandelak itzaltzeko txantxila astintzen duen sakrista atzetik dakarrela <b>heriosuhar</b> .»	(48)
<b>hozkarra</b> 'hozgara, hozkirri, fresko'	«Gau iluna zen. Hontzaren ulua entzuten genuen, eta halako ikara bat ematen zidan niri behintzat. <b>Hozkarra</b> zegoen.»	(110)
<b>hurko</b> 'norberaren hurrengoa, edoz. pert	«Heu galdu bahaiz, etzakela <b>hurkoa</b> galdu.»	(127)
<b>hurreen</b> 'hur, hurbil, gertu'	«Debekatua dauka baina gure adiskideak beti esan ohi du debekatutakoa <b>hurreen</b> eduki behar dela tentaldiari eusteko...»	(52)
<b>iaio</b> 'trebea, abila'	«Oraindik ere metrailetan kanoiak ketan zituztela hor egin dute morroi <b>iaioenek</b> jauzi zulorantz.»	(139)
<b>idazten ahal zuela</b> 'idatz zezakeela'	«...bere bizi luzeko pasadizoak kontatuz liburu bat <b>idazten ahal zuela</b> uste zuen Uztapide zaharrak...»	(51)
<b>igitai</b> 'belarra ebakitzeko tresna'	«Zer nahi dute, <b>igitaiarekin</b> aritzea soroan?»	(28)
<b>ihartu</b> 'sikatu'	«...betaurrekoen atzetik Metxak bota dion behakoa loreak <b>ihartzeko</b> modukoa izan da.»	(102)
<b>ihesgin</b> 'iheslaria'	«...Ane ez zela besoak gurutze egongo, sasiko lanetan ibiliko zela bere iloba <b>ihesgina</b> bezala...»	(124)




<b>ihintzatu</b> 'busti, urezatu'	«—Lasai, gizona, oso errazak dira zaintzen. Egunero <b>ihintzatu</b> behar dituzu, baina ilundutakoan, eguraldiak zerbait freskatu duenean.»	(104)
<b>ikuilu</b> 'gorta, abereen lekua'	«Atea irekita itzuli nintzenean amak galde egin zidan, besteen aurrean ausartzen ez zelako errieta ematen, ea zer egiten nuen nik <b>ikuiluan</b> .»	(89)
<b>ilunabar</b> 'iluntzea'	«...baina Metxak ezin du atea ireki. <b>Ilunabarra</b> da, etxerako gogo du.»	(91)
<b>indargetu</b> 'ahuldu'	«Karramarroei azazkalak moztera bidaltzeko gogo du ematen du, baina emakume honen kopetak <b>indargetu</b> egiten du, ahuldu.»	(104)
<b>inondik ere</b> 'ziur, zalantza barik'	«Agirretarra <b>inondik ere</b> . Beti erorian ibiltzen diren gizajoak dituzu agirretarrak.»	(7)
<b>irazkindu</b> 'haria ehuna egiteko moldean jarri'	«Zuk badakizu ardiak soilitzen? Ez. Eta artilea iruten? Ez. Eta irundakoa astalkatzen? Ez. Eta astalkatua harilkatzen? Ez. Eta harilkatua <b>irazkintzen?</b> »	(87)
<b>irun</b> 'hari bihurtu'	«Zuk badakizu ardiak soilitzen? Ez. Eta artilea <b>iruten?</b> Ez. Eta irundakoa astalkatzen? Ez. Eta astalkatua harilkatzen? Ez. Eta harilkatua irazkintzen?»	(87)
<b>ispia</b> 'espioia, isilpeko zelataria'	«—Ba, haren seme bat Resistence-n sartu zen, aliatuen <b>ispia</b> bezala nazien aurka, bigarren mundu iskanbila horretan.»	(80)
<b>itxitura</b> 'toki sarratua'	«...mirariaren kontra jardun ondoren mirariz bezala irteten dela protagonista <b>itxituratik...</b> »	(53)
<b>izenobez</b> 'ezizenez hitzaren sinonimoa'	«...jerentearen hitzaldia amaitutakoan eskua jasoko duen hauxe da Agirre'tar Nikola, berak inoiz esaten duen bezala, <b>izenobez</b> Metxa.»	(8)
<b>izugile</b> 'terrorista'	«Baina, mesedez eskatzen dizugu, esaiguzu nola iritsi zen zure liburu hau <b>izugile</b> talde batek On Kixoteren hezurdura bahitua zeukan zuloraino, e?»	(133)
<b>jankada</b> 'jataldia, betekada'	« <b>Jankada</b> egin eta hala ere kolkoa bete etortzen ginen frontoira, bruxak txerri eginda.»	(55)
<b>jauzi egin</b> 'salto egin'	«Morikok <b>jauzi egingo</b> du botila artetik eta mahai gainean jarriko zait, etzanda.»	(59)
<b>jazarrean hartu</b> 'bata bestearen atzetik'	«...mapak erakutsi zizkien, memento hartan bertan satorren zulo guztiak <b>jazarrean</b> ari zirela <b>hartzen</b> , memento historiko bat bizi zutela...»	0
<b>jukutria</b> 'azpikeria'	«Nola esan behar diek udaltzainek ez eramateko <b>jukutria</b> izan zela? Hauek sinetsi?»	(132)
<b>kainupe</b> 'txorropea'	«Pelton turbina hain gauza simplea da, etxeko <b>kainupean</b> jarri eta iturria irekitzen duzun aldiro elektrizitatea sortzen du...»	(17)
<b>kalapita</b> 'eztabaida, istilua'	«... "Munduaren azkena, munduaren azkena!" eta denak konfesatzera eta <b>kalapita</b> polita sor zitekeen...»	(53)
<b>kankailu</b> 'handikotea, baldres xamarra'	«Mandoak ez luke ostiko ederragorik emango. Nondik fitxatu ote dute <b>kankailu</b> hau?»	(94)
<b>kanpai-mihi</b> 'arrana, kanpaien mihia'	«Kukubiltxo behiaren errapeari bezala <b>kanpai-mihiari</b> besarkatua kanpandorreraino noala ni!»	(54)
<b>kapar</b> 'latrea, jasanezina, kantsagarria'	« <b>Kaparra</b> duk Pepe hau aldiak ematen dionean.»	(19)
<b>kar-kar-kar</b> 'barreka'	«—Xagu batean? <b>Kar-kar-kar...</b> !»	(29)
<b>karkaba</b> 'kuneta'	«Anek ihes egin du leihotik <b>karkabara</b> jauzi eginda.»	(123)
<b>karkaxa</b> 'erruxa, eztarriko mukia'	«Ez, ez da eztul handiak eginez <b>karkaxa</b> musuzapian botatzen duen hau.»	(8)
<b>kaskazuri</b> 'buru zuria, ilea urdindua duena'	«...atzealdeko huraxe da, <b>kaskazuria</b> , ume bihurri baten behakoa duena, beginabarra, hitzei erne egon den horixe da...»	(8)




<b>katramila</b> 'nahastea'	«Zenbat ate, hainbat maratila esan ohi da, eta Nikolak beti gaineratzen du "Eta zenbat maratila, hainbat <b>katramila</b> !"»	(91)
<b>kisketa</b> 'interruptorea'	«Hango kable, hemengo <b>kisketa</b> , mahai gaineko tornua... Puntapax okerrak zuzentzen kolpe eder bat eman dio mailuaz atzamar lodiari.»	(18)
<b>kopeta</b> 'bekokia'	«Karramarroei azakalak moztera bidaltzeko gogoia ematen du, baina emakume honen <b>kopetak</b> indargetu egiten du, ahuldu.»	(104)
<b>kozkor</b> 'barrabilak'	«"Hori duk hori!", esaten omen zioten ahapetik, "Hik dituk <b>kozkorrak</b> !" eta antzekoak.»	(34)
<b>kozkortuago</b> 'haziagoa, helduagoa'	«Maite du biloba. Tarrotzen hasia da, egunean baino egunean <b>kozkortuago</b> ikusten du.»	(67)
<b>kuku egiten aritu</b> 'zelatatzen aritu'	«Seguru behatxulotik <b>kuku egiten ariko</b> dela Maritxu petral hori...»	(94)
<b>laia</b> 'bi hortzeko nekazaritza tresna'	«Manixenekoak ere etor zitezkeen, beren <b>laiekin</b> palanka eginda ea kanpaia altxatzen zuten...»	(54)
<b>lain</b> 'beste, adina'	«Segan ere ozta daki, behien janariak egiteko <b>lain</b> .»	(26)
<b>langintza</b> 'lana, zeregina'	«Asmatuko luke Metxak, oker handirik gabe, nor eta nor ibiliak diren <b>langintza</b> honetan...»	(68)
<b>lepoa jarri</b> 'apustu egin, ziurtasuna adierazi'	«...baina <b>lepoa jarriko</b> nuke ez duzula halakorik entzun etxean.»	(109)
<b>litxaferu</b> 'suziria, txapligua, bolandera'	«...ez diote elkarri ordaintzen uzten, <b>litxaferuak</b> botatzen dituzte gainontzeko agirretarrek ere jakin dezaten mindunen arraza oraino bizi dela...»	(7)
<b>liztor</b> 'eztena duen intesktua'	«Mahaiaren ertzean pausatu den <b>liztorra</b> uxatu du Metxak.»	(40)
<b>lizundu</b> 'umela, hezetasanak janda'	«Lizar zabal baten azpiko mahai <b>lizunduan</b> eseri dira.»	(33)
<b>lo-zaila</b> 'nekez lo hartzen duena'	«...errepatatu ditu memoriako oroitzapenak. Beharrik telebistan film batzuk askotan ematen dituzte. Zer edo zertarako balio behar du <b>lo-zaila izateak</b> .»	(79)
<b>logaldu</b> 'loezinak jota, insomnioak jota'	«Etzeratutakoan <b>logaldua</b> dago. Neurriak hartu beharko ditu berak ere.»	(124)
<b>lokotx</b> 'artaburua'	«...azpian zanpatu ez zituen aleak helizearen hegalek burugabe utzi omen zituzten, buelta osoko <b>lokotx</b> guztiak moztu omen zituzten.»	(141)
<b>madreak</b> 'inguruak, zerak'	«...badakit zuek zeuek ekartzen dituzuela nahi dituzuen paperak eta <b>madreak</b> gero inori harrapatu dizkiozuela esateko.»	(126)
<b>maiorazko</b> 'premua, oinordekoa'	«Ez da baserri Casablanca hau, baina garai bateko maiorazkoa zahartu egin da eta seme-alabek ez diote segidarik eman nahi.»	(25)
<b>maiseatu</b> 'marmarka ibili, kritikatu'	«Metxa bere bilobarekin ikusitakoan <b>maiseatzeari</b> eman diote. Ahapetik, noski, bai baitakite Patxik adiskide duela.»	(75)
<b>malkar</b> 'leku harritsua'	«Zazpi behi eta <b>malkarrean</b> landutako baratzea, etorkizun ederra bost senideko familiarako! Kalera hartu behar izan zuten: batek moilara...»	(25)
<b>mandio</b> 'lastategia, belarrak gordetzekoa'	«...uste zuten zuloa soto bazterren batean egonen zela, edo <b>mandioan</b> , edo dolare zaharraren azpian ezkutatuta. Harritu ziren meta ingurura eraman	(139)
<b>maratil</b> 'txaramela, kisketa'	«Zenbat ate, hainbat <b>maratila</b> esan ohi da, eta Nikolak beti gaineratzen du "Eta zenbat maratila, hainbat katramila!"»	(91)
<b>marikirika</b> 'nonzeberria'	«...hainbat zuhaitzetatik eroritako agirretar jatorra, <b>marikirika</b> ziztrin batek bentzutua dago.»	(105)
<b>marmar</b> 'ahapeka hitz egitea, jarraian'	«Eta irten egingo da prentsa-gelatik bere lankide izandakoen <b>marmar</b> ergelak entzun gabe, txipi eta tente, herren pixka bat eginez eskuineko zangoan.»	(9)




<b>marrantatua</b> 'eztarriko ondoezaz, gaixotua'	«Eztul egin du, <b>marrantatu</b> samarra dabil egunotan. Ez luke erre behar.»	(53)
<b>mataza</b> 'artilezko-edo hari multzoa'	«Asko jakin behar da marrazki hauek ulertzeko. Bi eta hiru koloretan, marraz beteak, hari bihurrituak edo <b>mataza</b> nahaspilduak ematen dutela.»	(12)
<b>medikutan ibili</b> 'medikuarenean egon'	«Horietxek izan ziren Metxak <b>medikutan ibili</b> izan zen azken aldian entzun behar izan zituenak...»	(115)
<b>menderatu</b> 'kontrolatu'	«Zoro honek ez dik gauza onik egingo, ezin dik trastea <b>menderatu</b> , malkarrean dauzkagu soroak eta okertu egiten zaiok.»	(27)
<b>meta</b> 'belar piloa'	«...uste zuten zuloa soto bazterren batean egonen zela, edo mandioan, edo dolare zaharraren azpian ezkutatuta. Harritu ziren <b>meta</b> ingurura eraman	(139)
<b>minbera</b> 'erretxina, kanpixa'	«...Nikolari Metxa esaten zaiola erraz hartzen duelako su, oso <b>minbera</b> delako min eman nahi dutenekin.»	(10)
<b>mintxuria egin</b> 'zorabiatu'	«...erlikia eramateko eta miraria zela eta nik al dakit zer. <b>Mintxuria egin</b> zitzaidan orduan, alegia, konortea galdu nuela.»	(49)
<b>mitxirrika</b> 'tximeleta'	«Plano hau <b>mitxirrika</b> bat dela uste ditek hauek!»	(15)
<b>moila</b> 'portua'	«Zazpi behi eta malkarrean landutako baratzea, etorkizun ederra bost senideko familiarako! Kalera hartu behar izan zuten: batek <b>moilara</b> ...»	(25)
<b>morroilope</b> 'gatibu, atxiloturik'	«Eta <b>morroilope</b> aspertzen bahaiz, zer kostako zaik hiri Maiztegirena baino ihes landuago bat prestatzea...»	(135)
<b>mudantzak jorratu</b> 'aldaketak komentatu, arakatu'	«Egun badu Metxak presako zeregin bat Pepe egunkari saltzailearekin munduko <b>mudantzak jorratu</b> baino lehen bete beharrekoak.»	(11)
<b>mustatx</b> 'bibotea'	«Batean bizar, bestean <b>mustatx</b> , hurrengoan ilegorri... Erne ibili beharra dauka, paperak ere ez ditu oso legezkoak mutilak.»	(62)
<b>nahaspildu</b> 'korapilatua'	«Asko jakin behar da marrazki hauek ulertzeko. Bi eta hiru koloretan, marraz beteak, hari bihurrituak edo mataza <b>nahaspilduak</b> ematen dutela.»	(12)
<b>nik al dakit zer</b> 'ez dakit zer eta ez dakit nor'	«...erlikia eramateko eta miraria zela eta <b>nik al dakit zer</b> . Mintxuria egin zitzaidan orduan, alegia, konortea galdu nuela.»	(49)
<b>nire ezpaleko</b> 'neure moldekoa, neu bezalako'	«Musuzapi zimur bat atera eta zintz egin du ozen. <b>Nire ezpalekoa</b> heldu haiz...»	(76)
<b>oilolur</b> 'oilategia' (?)	«—Batzuetan komenigarria izaten da <b>oilolurretik</b> irtetea...»	(36)
<b>oinordeko</b> 'herentzia'	«...hilero egin ohi duenez diru pixka bat hartu du sakelarako (...) eta azken putza Beñat bilobarentzat osatuz doan <b>oinordekoa</b> .»	(12)
<b>ongi penatu</b> 'nekatu, akitu'	«Etxean igogailua jarri zuten arte <b>ongi penatzen</b> zen gizajoa eskaileretan.»	(31)
<b>oraindik orain</b> 'duela gutxi, arestian, oixtion'	«Gure herriko eliza txipia eta pobrea da. <b>Oraindik orain</b> egona naiz barruan, Rufinoren hiletetan.»	(45)
<b>oraino</b> 'oraindino, oraindik'	«...ez diote elkarri ordaintzen uzten, litxaferuak botatzen dituzte gainontzeko agirretarrek ere jakin dezaten mindunen arraza <b>oraino</b> bizi dela...»	(7)
<b>orpo</b> 'sustrai, zuhaitz ipurdia'	«Lizarraren <b>orpoan</b> hustu du sagardo kondarra.»	(40)
<b>orroka</b> 'oihu larriak egin'	«...eta hamaikagarrenen horretan hor entzuten da egundalako suntsitzea, eta mundu guztia <b>orroka</b> izaturik...»	(47)
<b>ostera</b> 'berriro, atzera'	«...eta agure gureak hasperen sakon bat eginik lanean segi orduko, hemen dator <b>ostera</b> Maritxu pala-erratzekin.»	(103)
<b>pausoak hartzen ibili</b> 'jarraika, zelatatzen'	« <b>Pausoak hartzen ibili</b> zaizkik urteotan. Eta heu ohartu ez. Eta Pepe eta Patxi eta Simon, piku baldoan hirurak ere.»	(129)



<b>pegatxita</b>	«...kanpaia mugitu beharrean idiak hanketatik <b>pegatxita</b> gelditu kanpaian.»	(54)
<b>pentze</b> 'belardia'	«...eta lasterka zoroak egiten genituen belarra ebaki gabeko <b>pentzeetan</b> ...»	(56)
<b>pertxenta</b> 'eder-ederra, deigarria'	«Agure honek adarra jo dizue. Noizbait ere neska <b>pertxenta</b> hori erori da habiatiz eta magnetofono bat atera du.»	(81)
<b>peto</b> 'betea, oso-oso, jatorra'	«Eta jendeak nahiago duenez minik ez hartu, gero eta bakanagoak dira agirretar <b>petoak</b> .»	(7)
<b>petxuko ederra hartu</b> 'ongi nekatu, nekealdia hartu'	« <b>Petxuko ederra hartuko</b> luke Nikola eroriz gero altxatzen laguntzen, belaun siku horiekin ezingo bailuke bakarrik zutitu.»	(32)
<b>piku baldoan</b> 'bat eginda, konpintxatuta' (?)	«Pausoak hartzen ibili zaizkik urteotan. Eta heu ohartu ez. Eta Pepe eta Patxi eta Simon, <b>piku baldoan</b> hirurak ere.»	(129)
<b>pitokeria</b> 'alukeria, astakeria'	«Emateko dirua. Kartera luzatu nion, ze, bestela edozer <b>pitokeria</b> egingo zidan mukizu hark, beldurak airean zegoen-eta gizajoa.»	(112)
<b>pixar</b> 'hondakina, akabukoa'	«...belauneko mina erraz eramango zuela gelditzen zitzaion bizitza <b>pixarrean</b> .»	(116)
<b>portunatu</b> 'suertatu, agertu'	«Nik beti erosten nion papera gure herrian <b>portunatzen</b> zenean...»	(35)
<b>potoko</b> 'potoloa, lodikotea'	«Bizardun <b>potokoak</b> planotzar bat zabaldu du lurtean.»	(77)
<b>poxpolin</b> 'neskatila itxura ederrekoa'	«...dio karpeta bat zabalduz Metxa komisari ohiak telebistako <b>poxpolin</b> horietako baten itxura hartu dion neska honek.»	(79)
<b>punpa egin</b> 'taupaka, presioa egin'	«Eztarrarian <b>egiten dio punpa</b> bihotzak Metxa zaharrari.»	(21)
<b>puntapax</b> 'iltzea'	«Hango kable, hemengo kisketa, mahai gaineko tornua... <b>Puntapax</b> okerrak zuzentzen kolpe eder bat eman dio mailuaz atzamar lodiari.»	(18)
<b>sagasti</b> 'sagardia, sagarrondo multzoa'	«Inoren <b>sagastian</b> sartuta belauna urratu zuen batek adarrak behera egin zuelako.»	(7)
<b>sakela</b> 'poltsikoa, patrika'	«...hilerok egin ohi duenez diru pixka bat hartu du <b>sakelarako</b> (...) eta azken putza Beñat bilobarentzat osatuz doan oinordekoa.»	(11)
<b>samalda</b> 'multzo handia, tropela'	«...Brasilen, ume beltz <b>samalda</b> baten guraso aspaldian bidalitako argazki hartan ikusten denez...»	(25)
<b>samurra jarri</b> 'bigundu, haserretu' (?)	«Hobe horrela, ez gu bezala denak ezer esateko beldurrez. <b>Samurra jarri</b> zidak Beñat arraio honek...»	(70)
<b>sasiko lan</b> 'ezkutuko zeregina'	«...Ane ez zela besoak gurutze egongo, <b>sasiko lanetan</b> ibiliko zela bere iloba ihesgina bezala...»	(124)
<b>segan</b> 'belarra ebakitzen'	« <b>Segan</b> ere ozta daki, behien janariak egiteko lain.»	(26)
<b>segitez gerotan</b> 'segituz gero'	«Mukizu honek ez dik atarramentu onik aterako horrela erretzen <b>segitez gerotan</b> .»	(16)
<b>seniparte</b> 'herentzia parte, ondasuna'	«Uko egin niola neure <b>seniparteari</b> .»	(112)
<b>su eta fu</b> 'haserre bizian'	«...baina ez zien kasu handirik egin, harik eta apaiza azaldu zen arte <b>su eta fu</b> papera eskuan txapelokerrekin.»	(35)
<b>tente</b> 'buruzut, hazkor'	«Eta irten egingo da prentsa-gelatik bere lankide izandakoen marmar ergelak entzun gabe, txipi eta <b>tente</b> , herren pixka bat eginez eskuineko zangoan.»	(9)
<b>tira ahala</b> 'bota ahala, zenbatgura, asko'	«Kazetariak azaldu ziren hurrena, telebista ere bertan omen zen. Argazkiak <b>tira ahala</b> egin, bazterrak miatu...»	(141)



<b>traste</b> 'tramankulua, makina'	«Zoro honek ez dik gauza onik egingo, ezin dik <b>trastea</b> menderatu, malkarrean dauzkagu soroak eta okertu egiten zaiok.»	(27)
<b>traste</b> 'bihurria, okerra'	«...eta Janjaibanek ume <b>traste</b> hori ez dela hiltzen samurra izango.»	(54)
<b>triku</b> 'kirikolatza, kirikiñoa, sagarroia'	«...orduak, bozkak biltzeko (...) <b>trikua</b> berriz basurdetu egin da zerrien bozka bildu nahian...»	(71)
<b>txanblazo</b> 'muturrekoa,	«—Egin duenak egin duela, <b>txanblazo</b> ederra eman die gazte harroko horiei!»	(23)
<b>txantxila</b> 'txanbila, ontzi luzexka'	«...ihesari eman dio Morikok, kandelak itzaltzeko <b>txantxila</b> astintzen duen sakristaua atzetik dakarrela heriosuhar.»	(48)
<b>txapeloker</b> 'guardia zibilak'	«...baina ez zien kasu handirik egin, harik eta apaiza azaldu zen arte su eta fu papera eskuan <b>txapelokerrekin</b> .»	(35)
<b>txatxu</b> 'memeloa'	« <b>Txatxua!</b> Ez duela adierazi nola irten nintzen kanpaitetik...»	(52)
<b>txerri eginda</b> 'lohi-lohi, saskelduta'	«Jankada egin eta hala ere kolkoa bete etortzen ginen frontoira, bruxak <b>txerri eginda</b> .»	(55)
<b>tximoso</b> 'tximak dituen, adats multzoak'	«...hor irten zait zubipetik <b>tximoso</b> mutur-okor bat labana eskuan. Emateko dirua.»	(112)
<b>txirrika</b> 'polea'	«Baina orduan garabiak oso bakanak ziren bazterrotan, dena <b>txirriken</b> bitartez egiten zen, besoz.»	(54)
<b>txoropito</b> 'txoriburua, ergela, tontolapikoa'	«Eta gure Metxa hori paseatzera joana traste horretan... <b>Txoropittoa!</b> »	(30)
<b>txukundu</b> 'atundu, maneiatu'	«Hori duk belardia <b>txukuntzeko</b> modua hermano, punki horietako baten burua dirudiela utziko zidak...»	(27)
<b>ukuilu</b> 'korta'	«... <b>ukuiluak</b> argi gutxi duela, arbia txikitzeko makina matxuratu egin dela...»	(25)
<b>ulu</b> 'oihu zorrotz eta luzea'	«Gau iluna zen. Hontzaren <b>ulua</b> entzuten genuen, eta halako ikara bat ematen zidan niri behintzat. Hozkarra zegoen.»	(110)
<b>urketa</b> 'ur bila'	«Beste hark esan zuena: ni <b>urketa</b> ahaleginduagatik berdin erreko duk-eta segi dezagun festan.»	(92)
<b>uxatu</b> 'aldendu, urrundu'	«Zure laguntza behar nuke Maritxu izeneko andrakila bat etxetik <b>uxatzeko</b> .»	(113)
<b>uztai</b> 'zirkulu formako objektua'	«... <b>uztaian</b> dituen giltza guztiak probatzen saiatu da...»	(94)
<b>xaxatu</b> 'zirikatu, zeozer egitera tentatu'	«Aurka egin dio bere burkideari, Besamotza <b>xaxatzeko</b> ...»	(39)
<b>xirripa</b> 'txorrotadatxoa'	«Iturri irekiaren ur <b>xirripa</b> entzuten da bakarrik.»	(21)
<b>zabuka</b> 'alderoka (Zuzen ibili ezinik)'	«...litxaferuak botatzen dituzte (...), estropezu egiten hasten dira ohartu gabetanik, <b>zabuka</b> , ziraldoka hankak berriz sortuta, erortzeko arriskuan.»	(8)
<b>zabuka</b> 'brastakoan, kolpean, oldean'	«...adin batetik gora urteak ez datozela aleka, <b>zabuka</b> baizik.»	(120)
<b>zaflada</b> 'zaplastekoa, txaloa'	«Orain altxa egingo duk eta <b>zaflada</b> bat emango zidak.»	(132)
<b>zakar</b> 'jeniokoa, desatsegina'	«Aita <b>zakarra</b> genuen, ez zegoen ezer galdetzerik.»	(110)
<b>zakil</b> 'alua, tentela, lerdoa'	«"Ez dut ulertzen izena aldatzeko kapritxo hori, gelditzen zaizun bizi apurratik...!" <b>Zakila</b> hura ere!»	(117)



<b>zango luzaka</b> 'urrats luzeak emanez'	«Baina Agirre'tar Nikola, Norteko Indar Argietako jubilatua bera, <b>zango luzaka</b> doa espaloian aurrera...»	(24)
<b>zapparro</b> 'lodikotea, potolotxoa'	«...baina badakizu ez naizela oso handia eta orduan ere <b>zapparroa</b> izango nintzen noski.»	(109)
<b>zapel</b> 'txapela, txanoa'	«Agirre'tar Nikolari itxurazkoa iruditu zaio, ez daraman <b>zapelaren</b> orde, betaurrekoak kentzea bere eskaria egin aurretik.»	(13)
<b>zapel</b>	«Katortzek apustu egiten zuen tabernan, denek entzuteko moduan, gau hartan <b>zapela</b> elizaraino iritsi baietz.»	(109)
<b>zarpatsu</b> 'zorritztoa, zikina'	«...ikusten dute Besamotza etxerantz alproja, zakur <b>zarpatsua</b> usainka ondoan...»	(34)
<b>zauli</b> 'zalu, arin, agil'	«...betaurrekoak kendu gabetanik hemen dator igogailuari itxaron ezinik eskaileak behera atea giltzatzea ahantzita, belauna inoiz baino <b>zauliago</b> ...»	(13)
<b>zer</b> 'gauza, kontua'	«...horretxegatik azaltzen naiz hain gutxi, aspaldiko <b>zerak</b> beti ahotan, oraingoak ardura ez baligu bezala...»	(41)
<b>zerra</b> 'zati luzexka'	«Eta paperezko zapiak, gatza, koilaratxo bana, ogi <b>zerrak</b> saskitxo batean.»	(35)
<b>zimel</b> 'argala, errea'	«Zutituko da Metxa eta orduan ikusi ahal izango dugu txipia dela, <b>zimela</b> , gizen asko bildu gabea, bizkorra.»	(9)
<b>zintz egin</b> 'mukiak indarrez atera'	«Musuzapi zimur bat atera eta <b>zintz egin</b> du ozen. Nire ezpalekoa heldu haiz...»	(76)
<b>ziplo</b> 'ustekabea, ezustekoa'	«Isildu dira. Ez zuten <b>ziplo</b> hau espero.»	(29)
<b>ziraldoka</b> 'alderoka, zabuka'	«...litxaferuak botatzen dituzte (...), estropezu egiten hasten dira ohartu gabetanik, zabuka, <b>ziraldoka</b> hankak berriz sortuta, erortzeko arriskuan.»	(8)
<b>zirpildu</b> 'zatiz osatua, zati desberdinekin'	«Maritxuk gardenia potoa ohe <b>zirpilduaren</b> gainean utzi eta leihoa zabaldu du.»	(105)
<b>zirtzilkeria</b> 'balio gabeko gauza, txorrada'	«...ez baitzuten ulertzen zertan sartu behar zuen politikan eta halako <b>zirtzilkeriatan</b> , ingeniari ikasketak alde batera utzita.»	(62)
<b>ziztrin</b> 'ezdeusa, petrala'	«...hainbat zuhaitzetatik eroritako agirretar jatorra, marikirika <b>ziztrin</b> batek bentzutua dago.»	(105)
<b>zurikeria</b> 'on itxura faltsua'	«Lasai, kasikan hobe duk lehenbailehen hastea. Akabo <b>zurikeria</b> , eta ea nor den egoskorrago.»	(132)